

AGIRRE, Josean. Romain zen bere izena.

Elkar argitaletxea, Donostia, 2003

206 orrialde

Ainhoa AROZENA

Literaturaren inguruan eginiko gogoetak eta hausnarketak dira liburuaren oinarritzko gaia. Tartean burua galtzekotan dabilen ikerlari taldearen ikerketa eta maitasun istorioak. Maitasun kontuak, atseginak eta zatarragoak. Zoriona eta galbidearen arteko tartea bata bestearengandik urrun ez dagoela sumatu ahal izango da behin baino gehiagotan.

Eleberriaren hasieran, emakume batek pistola batez bere senarra hilko du eserita dauden parkeko bankuan. Gizon hori, ikerlari talde bat bila ari den idazle famatua izango da. Romain Gari. Istorioak aurrera egingo du, baina atzera begirada askoren laguntzaz. Bien bitartean, senarra hil duen emakumeak ikerlari taldeko irakaslearen laguntza izango du bere ingurune ilunenetik ateratzeko. Irakasleak bere ikasle gazte batekin, Monikarekin, izandako maitasun istorio ia ezinezkoak ere indarra hartuko du une batez. Emakumeak atsegin ditu irakasleak, zer esanik ez Sophie, Romainen emazte zena. Maitasunaren eta erakarpeneren mugetan eleberriaren sekretu handia argituz joango da. Nor zen Romain Gari? Zergatik idazten zuen? Nor zen bere emazte Sophie? Zergatik akabatu zuen Romain? Galdera ugari sortzen du eleberriak. Irakurketan aurreratu ahala, zalantza guztiak argitu eta espero gabeko amaierarekin egingo du topo irakurleak. Aurrera ezin daitekeen amaiera, irakurtzeak misterioa galduko bailuke bestela.

Deskribapen zehatz eta sentsualez betetako liburua da; une txikiei garrantzia handia ematen zaiena. Geldoa da kontaketa, oso

geldoa agian, baina irakurleak irakurgaia tentuz jarraitzeko moduan osatuta dago mamia. Ez dago presarik amaierara iristeko. Sekretua jakin eta gero, ideia guztiak txukun lotzeko, gogoeta tartetxo bat eskatzen du liburuak.

Misterio kutsuak inguratzen duen maitasun istorio bat baino zerbait gehiago ere bada. Literatura du hizpide nagusi. Romain Gari idazlearen bizimodu frustratua aitzakiatzat hartuta, idazle askoren berri ematen da. Literatura egiteko arrazoiak azaleratzen dira, idazlearen joerak eta jarrerak, idazteko moduak eta zergatiak. Idazleak berak arteak nahiz literaturak sortzen zizkion galderei erantzuna aurkitu nahi ziela argi zeukan eleberria idatzi aurretik: "Artea nahiz literatura, dena espektakulu bat da askotan. Gehiago da fama errealtatea baino. Gai horiekin bueltaka nenbilela, autore askorekin egin nuen topo. García Ortelanok beste izen batekin idatzi zuen nobela erotikoa bat eta inor ez zen horretaz jabetu hil zen arte. Idazle askok jorratu du egia eta gezurraren arteko bide hori. Galdera ezberdinak etorri zitzaizkidan burura: Zer dira egia eta gezurra? Zer da artea? Zer da benetako artea/literatura? Artikulu batean Romainen bizitza ezagutu nuen eta izugarritzko historia iruditu zitzaidan, nik nahi nuena aurkitu nuen. Gizon horrek ez zuen muntaia bat egin, pertsonaia bat asmatu zuen bera ordezkatzeko. Best seller-ak idatzita, fama zeukan, ortodoxoa zen; *Concour* saria irabazita, garai hartako Frantzia oso handia zen. Baina bera aspertuta zegoen, kritikak ere gogorrak zituen. Seudonimo bat asmatu beharrean, bere ilobaren pertsonaia asmatu zuen bera ordezkatzeko, Emil Ajar ezizenarekin. Iloba bere golema zen, aurpegia ematen zuena. Lau liburu idatzi zituen ezizen horrekin, estiloz aldatu zuen eta beste *Concour* sari bat eskuratu zuen. Lehengo estiloan eta estilo berrian idazten jarraitu zuen, aldi berean. Gertaera hauen aurrean, idazle baten nortasuna zein den etortzen zaizu burura. Zein da benetakoa? Zein ez? Aukera ugari ematen zidan nik nahi nuena idazteko eta aurrera egin nuen".

Beterriko Liburuak literatur aldizkaria, 19. zenbakia.